

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea**

«Ukanauto» ibilgailuen erabilera partekatuko zerbitzu publikoa eskuratu eta erabiltzeko baldintzak jasotzen dituen Araudiaren aldaketa behin betiko onartzea.

«Ukanauto» ibilgailuen erabilera partekatuko zerbitzu publikoa eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzak jasotzen dituen Araudia aldatzeko behin-behineko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (2025eko maiatzaren 20ko 94. zenbakia), eta jendaurrean jartzeko epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betikoa bihurtu da, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.3 artikulua xedatu bezala, eta, ondorioz, Araudi honen testu osoa argitaratu da, aipatutako foru arauaren 16.4 artikulua xedatu bezala.

Sopelan, 2025eko ekainaren 25ean.—Lehendakaria, Guruzne Carrasson Torrontegi

**URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALERRIETAN
«UKANAUTO» ZERBITZU PUBLIKOA — IBI LGAILUEN ERABILERA PARTEKATZEKO ZERBITZU PUBLIKOA — ESKURATU ETA ERABILTZEKO BALDINTZEN ARAUDIA**

Uribe Kosta Zerbitzu Mankomunitateak osatzen duten udalerrietan (Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizen) ibilgailuen erabilera partekatzeko sistema ezarri du (Car Sharing, «Ukanauto»), ibilgailuen jabe izan beharrik gabe; hala, alde batetik, lurralde esparru horretan mugikortasun iraunkorra garatzeko politikan eragina izango du; eta, bestetik, batez ere, herrietako biztanleei inguru horretako garraio publikoaren osagarria eskaini nahi die, herritarren bizi kalitatea hobetze aldera.

Hala, aipatutako zerbitzuarekin klima aldaketaren aurka lan egin nahi da, ibilgailua modu arrazoizkoagoan eta arduratsuagoan erabiliz, beharrian desberdinei egokitutako ibilgailuekin, erabiltzaileengandik gertu eta deszentralizatuta izango direnak. Zehatzago esateko, zerbitzuak abantaila hauek eskaintzen dizkie erabiltzaileei, besteak beste:

- Ibilgailua izateak eragiten dituen kostuen aurrean, dirua aurrezte.
- Erabilera malgua; izan ere, asteko 7 egunetan, eguneko 24 orduetan erabilgarri izango den autozerbitzu sistema da, urteko 365 egunetan, erregelamendu honen arabera baztertutako jaiegunetan izan ezik, edota egin litezkeen lizitazioen arabera, erregelamendu honetan jasotzen dena hobetzen duten heinean.
- Ibilgailua eskuratzeko erosotasuna eta berehalakotasuna, ibilgailuak etxe edo lantokitik gertu dauden aparkalekuetan egongo direlako, haientzako aparkalekuak dauzkaten Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean bildutako udalerrietan.
- Erabiltzaileek ez dute aparkalekuagatik (gaitutako puntuetan), aseguruagatik, azterketengatik, garbitzeagatik, gordailuagatik, etab. kezkatu beharko.
- Ibilgailuaren erabileraren kostu zehatza jakitea, gardentasuna.

I. KAPITULUA**XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. — Zerbitzuaren xedea**

1. «Ukanauto» Zerbitzuaren xedea da mugikortasun iraunkorreko sistema automatiko eta alternatiboa herritarren eskura jartzea; sistema horren bitartez, erabiltzaileak aplikazio mugikor bat edo ukipenik gabeko txartel bat, edo beste baliabide elektronikoko bat, izango du ibilgailura sartzeko, betiere Araudi honetan araututako kasuetan eta finkatutako baldintzetan erabiltzeko.

2. Mankomunitateak berak zuzenean emango du zerbitzua, edo zeharka emango du, pertsona edo erakunde emakidun baten bitartez, zerbitzuen emakidarako kontratua- ren bidez.

3. Zerbitzua urteko egun orotan emango da, urtarrilaren 1ean eta abenduaren 25ean izan ezik.

II. KAPITULUA**ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA****2. artikulua. — Alta emateko baldintzak**

1. Alta eman dezake 24 urtetik gorako edozein pertsona fisikok, baldin eta dagokion ibilgailu kategorian gidabaimen baliagarria eta Espainian indarrean dagoena badu, eta gidabaimenean gutxienez 2 urteko antzintasuna eta 6 puntu baditu. Alta emateko, ordaindu beharko da dagokion ordenantza fiskalean zehaztutako urteko kuota.

2. Alta kudeatzeko, UKZMk edota zerbitzuaren enpresa esleipendunak horretarako eskaintako bide telematikoak erabil daitezke, eta pertsona juridikoek bide telematikoak erabili behar dituzte.

Alta eman nahi duten pertsona fisikoek Mankomunitatearen bulegoetan ere entregatu ahal izango dute dokumentazioa (Gatzarriñe, 4, 48600-Sopela), zerbitzuaren es-



leipendunari bidaltzeko, haren bulegoetan, zeharkako kudeaketaren kasuan, edo emakidadunaren bulegoetan bertan, zerbitzua zeharka kudeatzen bada eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako moduetan.

Alta formalizatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Espainian baliagarria den eta indarrean dagoen gidabaimenaren kopia.
 - NAN, AIZ edo pasaportearen kopia.
 - Erreziboak helbideratzeko erabiliko den kontu korrontearen titularra izatea ziurtatzen duen Egiagiaztagiria. Halaber balioko du libretako lehenengo orrialdea. Bezeroa ez bada kontu horretako titularra, titularraren NANaren kopia eta horrek sinatutako baimena ere beharko dira, ordainagiriak kontu horretan helbideratzeko.
 - Alta emateko inprimakia, behar bezala beteta (emaila, NAN, telefono zenbakia, helbidea eta egiaztagirikoarekin bat datorren kontu korrontearen zenbakia). Erabiltzaileak bermatuko du emandako informazioa eta dokumentuak egiazkoak direla. Mankomunitateak dokumentazio faltsua edo informazio osagabea eta/edo zehaztugabea dela susmatzen badu, eskubidea izango du kontratu hau bertan behera uzteko edo baliogabetzeko.
- Erabiltzaileak datuak aldatuz gero, 15 eguneko epean jakinarazi beharko du. Gidabaimena kendu edo iraungiz gero, berehala jakinarazi beharko da eta erabiltzaileari baja emango zaio zerbitzuan, gidabaimena bertan behera dagoen artean edo harik eta berriarte.
- Urteko kuota uanean bertan ordaintzen ez bada, erabiltzaileak, alta-eskaera egin aurretik, urteko kuotaren diru-sarrera edo banku-transferentzia aurkeztu beharko du, ordenantza fiskalean onartutako prezioen arabera.

3. artikulua. — Ibilgailura sartzea

Eskatutako dokumentuak jaso ondoren, Mankomunitateak edo, hala badagokio, zerbitzua kudeatzen duen enpresak alta emango dio erabiltzaileari, eta informazioa bidaliko dio (app-a eta beharrezko dokumentazioa deskargatzeko txartela eta/edo jarraibideak). Ibilgailua irekitzeko erabiltzaile-txartela erabiltzen bada, txartel hori pertsonala eta besterenezina izango da. Erabiltzaileak txartel horrekin irekiko eta itxiko du ibilgailua.

Ibilgailuaren gordetegian egongo da ibilgailuaren abiatze-motorra pizteko giltza.

Ibilgailuaren giltza galduz gero, erabiltzaileak berehala jakinarazi beharko dio Mankomunitateari edo zerbitzua kudeatzen duen enpresari, horrek ordeztu dezan.

Txartela edo giltza galtzeak eta ordezteak Araudi honetan, edo dagokion Zerga Ordenantzian, deskribatutako gainordaina eragingo du.

4. artikulua. — Erabiltzailearen betebeharrak

1. Erabiltzaile bakoitzak txartela, app-a edo ezarritako sistema erabiliz sartuko da erreserbatutako autora. Ibilgailua aparkatzeko prestatutako toki berean utziko da, eta modu berean itxiko da. Erreserba uanean eta itzuli arte, erabiltzaileak izango du ibilgailua zaintzeko ardura, eta erabiltzen duen bitartean bera izango da erantzulea. Giltzen, ibilgailuaren dokumentazioaren eta osagai guztien erantzulea ere izango da. Erabiltzaileak inoiz ezingo du Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea erantzulezat jo ibilgailuaren ondorioz pertsonak edo ondasunek istripuak, matxurak, suteak, ezbeharrak, degradazioak edo lapurretak izanez gero. Baldin eta erabiltzaileak istripu edo ezbeharren bat badu ibilgailuarekin eta haren errua bada, aurre egin beharko dio aseguruaren frankiziari.

Baldin eta erabiltzaileak kontratuko baldintzaren bat betetzen ez badu edo ezbehar-tasa handia badu, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak edo, hala badagokio, zerbitzua kudeatzen duen enpresak beretzat gordeko du ibilgailuak erabiltzeko baimena kautelaz eteteko eskubidea, eta aldeztu aurretik jakinaraziko zaio horrela jarraitzekotan kontratua behin betiko suntsiaraziko dela.



2. Erabiltzaileak arduratsua izan beharko du ibilgailua eta osagaiak zaintzen. Egiaz-tatu beharko du argi guztiak itzalita daudela, eta ibilgailua aurkitu duen moduan utzi beharko du. Ibilgailua baldintza desegokietan itzultzen bada eta, ondorioz, zerbitzu tekni-koak esku hartu behar badu eta/edo administrazio-kudeaketa gehiago egin behar badira, erabiltzaileak izango du sortutako gastuen erantzukizuna, eta bere gain hartuko du gastu horiei dagokien zehapena.

3. Erabiltzaileak bere gain hartzen du ibilgailua beti toki seguruan aparkatzeko eta txartelaz, app edo jarritako sistemaren bidez itxeko konpromezua. Ibilgailua hartu zen leku berean entregatu beharko da, hau da, ibilgailuarentzat gordetako aparkaleku be-rean, behar bezala aparkaturik eta balazta jarrita.

4. Erabiltzaileak ondo begiratu beharko du ibilgailuari dagokion erregaia erabiltzen duela. Ibilgailuari ez dagokion erregaia erabiliz gero, erabiltzailearen kontura joango da okerrak eragindako gastuak. Halaber, erregai desegokia erabiltzeagatik konponketaren gastua ordaindu beharko luke.

5. Ibilgailuak edozein akats edo anomalia duela antzemanaz gero (kanpoan zein barnean), erabiltzaileak berehala jakinarazi beharko dio Mankomunitateari edo zerbitzua kudeatzen duen enpresari, kasu bakoitzean bati edo besteari, dagokion telefono-zenba-kira deituz. Erabiltzaileak konpromisoa hartzen du ez duela ibilgailua erabiliko horrek ez baditu betetzen ohiko segurtasun baldintzak.

6. Erreserba aldiaren ibilgailuak edozein degradazio, kalte edo hondatze izanez gero (kanpoan zein barnean), erantzulea erabiltzailea izango da.

7. Ibilgailuko gurpilek ohikoa ez duten erabilera dela medio gurpil bat edo batzuk hon-datuz gero, horren erantzulea erabiltzailea izango da. Gurpila desagertu edo apurtuz gero, dagokion prezioa fakturatuko zaio erabiltzaileari, desagertu eta ondorengo hilekoan.

8. Erabiltzaileak ezin izango du inolako interbentzio, lan edo konponketarik egin ibilgailuan.

Ibilgailua erabiltzetik eratorritako gastu, bidesari eta isun guztien erantzulea erabil-tzailea izango da, baita ibilgailuari eta/edo horren gidariei trafikoa eta motordun ibilgai-luen zirkulazioa arautzen dituen legedia eta aduana-legedia urratzeagatik ezarritako zenbateko guztiena ere.

Arau-hausterik gertatuz gero, erabiltzaileak berehala jakinarazi beharko dio Manko-munitateari edo zerbitzua kudeatzen duen enpresari, eta, zuzenean, aginte eskudunei ordaindu beharko die isuna edo zigorra.

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak zuzenean arau-haustearen jakinarazpena jasoz gero:

- a) Zerbitzua kudeatzen duen enpresak erabiltzailea identifikatuko du, eta Manko-munitateari jakinaraziko dio.
- b) Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak arau-haustea izapidetzeko beharrezko erabiltzailearen informazioa helaraziko die aginte eskudunei.
- c) Arrazoia edozein dela ere, Mankomunitateak isuna eta legozkiokeen errekar-gu edo interesak ordaindu beharko balitu, arau-hausteak eragindako kostu guztiak erreklamatu ahal izango dizkio erabiltzaileari arau-haustea egiten den unean, bai eta zehatzeko Administrazioari ordaintzen zaion unetik diruak duen legezko interesa ere.

9. Erabiltzaileek erreserben ordutegia errespetatu beharko dute, eta atzeratuz gero zerbitzua kudeatzen duen enpresari edo Mankomunitateari, kudeatzailea nor den kon-tuan hartura, jakinarazi beharko diote, hurrengo erabiltzaileari informatzeko. Erreser-ba-aldia bukatu ondoren ibilgailua itzultzen duen erabiltzaileak aurre egin beharko die Araudi honetan aurreikusitako atzerapenen ondoriozko zehapenei.

10. Erabiltzaileak ibilgailua eskuratutako toki prestatu berean itzuli beharko du erre-serba bukatu aurretik eta gutxienez erregaiaren tankearen laurdenarekin; horrez gain, argiak eta osagarri elektronikoak itzalita izan beharko ditu, eta modu zuzenean aparka-tuta egon beharko da horretarako erreserbatutako plazan.



11. Auto barruan erretzea guztiz debekatuta dago, eta erabiltzaileak dauka debeku hau betetzeko erantzukizuna.

12. Erabiltzaileak ezingo du autoan animaliarik garraiatu kaiolatik kanpo, eta bere animaliek ibilgailuan eragiten dituzten kalteen gaineko erantzukizuna izango du.

Betebehar horiek betetzen ez baditu, eta dagokion administrazio prozedura hasi ondoren, erabiltzaileak aurre egin beharko die Araudi honetan finkatutakoaren arabera aplikatuko diren zigorrei.

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak, kautela gisa, zerbitzua erabiltzeko eskubidea eten ahal izango du, harik eta zigortze-espeditatea ebatzi arte.

Erabiltzaileek, edozein datu aldatuz gero (egoitza aldatzea, telefono zenbakiak, bankuko datuak, gidabaimenaren puntuen galera etab.), uneoro, horren berri eman beharko diote zerbitzua kudeatzen duen enpresari edo Uribe Kosta Zerbitzuen Mankomunitateari, zerbitzua zelan kudeatzen den arabera.

5. artikulua. — Ibilgailua erreserbatzea

Ibilgailua erabili aurretik, erreserbatu egin beharko da Mankomunitateak edo zerbitzua kudeatzen duenak jarritako baliabideen bidez; eta horren ondoren, erabiltzaileak ibilgailua erabili ahal izango du eskatutako erreserba-aldian.

Erreserbak egin, aldatu edo baliogabetzea honela egingo da:

- a) Asteko zazpi egunetako 24 orduetan egin ahalko da zerbitzuaren web orrian; horretarako, erabiltzaileek gune pertsonalera sartu beharko dute, identifikadore eta pasahitz pertsonalak erabiliz, edota sor litekeen aplikazioa erabiliz.
- b) Telefonoz, Mankomunitateak edo, ez zuzeneko kudeaketa kasuan, baltzu edo pertsona kudeatzaileak jarritako lan-orduetan.

Ibilgailua erreserba-aldian soilik erabili ahal izango da.

Ibilgailuak erreserben ordenaren arabera esleituko dira.

Erreserban nortasunari (izena, erabiltzaile zenbakia), iraupenari (eguna, ordua, eta ibilgailua erabiliko den denbora, gutxi gorabehera) eta tokiari buruzko informazioa jasoko da (ibilgailua eskuratzeko eta itzultzeko tokia, edozein kasutan eskuratutako toki berean itzuli beharko da). Erreserba bakoitzak zenbaki jakin bana izango du.

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak, zuzenean edo zerbitzu hau kudeatzeko kontratatutako enpresen bidez, eskubidea izango du erabiltzailearen nortasuna egiaztatzeke, eta nortasunari buruzko zalantzarik izanez gero erreserba errefusatzeko.

Mankomunitateak, edo horrela badagokio, Zerbitzua kudeatzen duen enpresak mezu elektronikoa edo sms bat bidaliko dio erabiltzaileari erreserba berresteko; era berean, app-a edo ezarritako kanala erabiliz egin ahal izango du.

Erabiltzaileek erreserba baliogabetu edo aldatu ahalko dute erreserba egiteko erabilitako baliabide berdina erabiliz. Erreserba luzatu ahalko da berau indarrean dagoenean, betiere beste erabiltzaile batek ez badu ibilgailua erreserbatu hasierako erreserba bukatzerakoan.

Erabiltzen ari den erreserba ezingo da ezeztatu. Hala ere, erabiltzen ari diren erreserbak laburtu ahal izango dira, ordu erdiko zatietan, eta horrek erreserbako prezio osoaren jaitziera ekarriko du.

6. artikulua. — Ibilgailuak erabiltzeko baldintzak

Oro har, zerbitzuko erabiltzaileak egunero, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan erabili ahalko du ibilgailua, egun hauetan izan ezik: abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an.

Horrez gain, zerbitzua aldi baterako eten ahalko da, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak egokitzat jotzen badu, betiere egoerak hala eskatzen badu, edo ezinbesteko kasuetan.

Erabiltzaileak ezin izango dio inori ibilgailua utzi, ezta beste erabiltzaile bati ere.

Debekatuta dago Europatik kanpo gidatzea.



Autoa itzultzerakoan anomaliarik izanez gero, eta ez bazaio eskuratzeko unean Mankomunitateari edo zerbitzua kudeatzen duen enpresari horren berri eman, anomalia edozein izanda ere (dokumentazioa faltatzea barne), erabiltzailea izango da erantzulea.

Erreserba-aldia bukatzean, erabiltzaileak ibilgailua itzuli egin beharko du, eskuratu duen hasierako aparkalekuko toki berean. Halaber, erabiltzaileak ibilgailuko atea txartelaz itxi beharko ditu, eskuratzeko erabilitako prozedura bera jarraituz.

Erabiltzaileak ibilgailua funtzionamendu-egoera onean eta ondoren beste erabiltzaile batzuek erabiltzeko prest itzuli beharko du.

Erabiltzaileak erreserban aurreikusitako datan, orduan eta tokian itzuli beharko du ibilgailua. Erreserba-aldia bukatu ondoren ibilgailua itzultzen duen erabiltzaileak aurre egin beharko die Araudi honetan aurreikusitako atzerapenen ondoriozko zehapenei.

Mankomunitateak erabiltzailearen aurkako salaketa aurkezteko eskubidea izango du, baldin eta ibilgailua ez badu erreserba aldiaren ondorengo 24 orduetan itzultzen.

8. artikulua. — Erregaia

Zerga Ordenantzan araututako ordukako tarifak ibilgailuaren erregaia barne hartzen du; zerbitzua kudeatzen duen enpresak edo Uribe Kosta Zerbitzuen Mankomunitateak bere gain hartuko du gastu hori (segun eta zerbitzua zeharka, emakidaren bidez, edo zuzenean Mankomunitateak ematen duen), betiere erabiltzaileak erregaiaren tankea betetzeko ibilgailuan izango duen txartela erabiltzen badu: horretarako, erabiltzaileak autoaren eskuliburuan zehaztutako oharrak eta argibideak jarraitu beharko ditu. Txartel hori ezingo da erabili erreserbatutakoa ez den beste ibilgailu batekin. Halaber, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak ez ditu erregai gastuak bere gain hartuko erabiltzaileak ez badu eskuragai izan duen erregai txartela erabili.

Ibilgailua itzultzean erregaiaren maila tankearen laurdena baino gutxiagokoa bada, erabiltzaileak kontzeptu horretarako zehaztutako gainkarga ordaindu beharko du, zigor gisa.

Erabiltzaile batek Mankomunitateak edo zerbitzuaren enpresa esleipendunak emandako erregai-txartela iruzurrez erabiltzen badu, kontratua suntsiarazi ahal izango du. Edozein kasutan ere, erabiltzaileak bere gain hartu beharko du justifikatu gabeko erregaiaren gastua, eta Mankomunitateari edo zerbitzuaren enpresa esleipendunari ordaindu beharko dio txartela iruzurrez erabiltzearen ondoriozko edozein kalte edo galera. Halaber, aurre egin beharko dio dagokion zehapenari.

Erabiltzaileak erregaiaren txartela galduz gero, berehala jakinarazi beharko dio Mankomunitateari edo zerbitzua kudeatzen duen enpresari (segun eta nork kudeatzen duen zerbitzua). Edozein kasutan, txartela galduz gero, erregelamendu honetan edo Zerga Ordenantzan araututako gainkarga aplikatuko da.

9. artikulua. — Matxura, istripua edo lapurreta

Erreserba aldiaren ibilgailua ohi bezala erabiltzea edo ibiltzea galarazten edo mugatzen duen, edo pertsonen segurtasuna kolokan jarriko lukeen arazorik edo anomaliarik antzeman ez gero, erabiltzaileak berehala aparkatu beharko du ibilgailua. Edozein matxura Mankomunitateari edo zerbitzua kudeatzen duen enpresari (zerbitzua emateko eraren arabera) jakinarazi beharko zaio, lehenbailehen. Erabiltzailea laguntza-telefonoaren bidez jarri beharko da harremanetan. Honako hauetatik eratorritako gastuak prestazio horietatik salbuesten dira: gurpila aldatzea, erregaiaren tankea betetzean erratzea, txartela eta giltza galtzea, txartela ibilgailu barruan giltzapean uztea, ibilgailuan ahaztutako edo galdutako objektuak. Erabiltzaileak gastu horiek guztiak bere gain hartu beharko ditu.

Istripurik izanez gero, erabiltzaileak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Segurtasuneko txalekoa janztea ibilgailutik atera aurretik, segurtasun eta larrialdi baldintzek ahalbidetzen badute.
2. Beharrezko neurriak hartzea beste istripurik ez gertatzeko; bide seinaleen triangelua erabiltzea ibilgailua babesteko eta gainerako gidarien segurtasuna bermatzeko. Halaber, inor zaurituz gero, erabiltzaileak berehala eman beharko die horren berri larrialdi zerbitzuei (polizia, Ertzaintza, Larrialdi eta Salbamendu Zerbitzua).



3. Mankomunitateari edo zerbitzua kudeatzen duen enpresari (erreserba norekin egin den arabera, zerbitzua kudeatzeko zein den kontuan izanda) istripuaren berri eman beharko dio lehenbailehen (gehienez 24 orduko epean), baita istripuaren ondoriozko larrialdi zerbitzuen esku-hartze guztiaren berri ere.
4. Istripuaren txostena idatzi ondoren, zerbitzua kudeatzen duen enpresari igorriko dio, baita soilik kalte materialak badaude ere. Txostenean datu hauek bildu beharko dira, modu argian eta xehatuan azalduta: istripuaren nondik norakoak, istripuaren kausak, eta, ahal izanez gero, lekukoak, istripua eragin duten eta kaltetutako pertsonen izenak eta helbideak.
5. Ezbeharraren gainean zerbitzua kudeatzen duen enpresak eskatzen duen edozein informazio osagarri ematea.
6. Ibilgailuen aseguruarekin kolaboratzea, beharrezkoa den guztian; eta istripuari buruzko informazio osatua eta egiazkoa ematea.
7. Istripuaren eta/edo ezbeharraren erruduna bada, frankizia eta/edo istripuak eragindako gastuak ordaintzea.

Lapurretarik izanez gero, erabiltzaileak horren berri eman beharko dio zerbitzua kudeatzen duen enpresari, eta Udaltzaingoan edo Ertzaintzan ibilgailua lapurtu izana salatu beharko du, betiere lapurretaren berri izan eta 24 orduko epean. Betebehar hori ibilgailua desagertzen ez den lapurreten kasuan ere aplikatuko da. Txostena, gehienez ere, salaketa aurkeztu den datatik 48 orduko epean aurkeztu beharko da zerbitzua kudeatzen duen enpresan edo Mankomunitatean, kudeaketa sistemaren arabera. Betebehar hori betetzen ez bada, aseguruaren estaldurak ez du lapurreta bere gain hartuko, eta horrenbestez, dagokion zigorra eta kalte-ordaina jarriko dira.

10. artikulua.— Zerbitzuan baja ematea

1. Bolondresko baja

Erabiltzaileak baja eman ahalko du zerbitzuan, Mankomunitateari edo zerbitzua kudeatzen duen enpresari (zerbitzuaren kudeaketa sistemaren arabera) jakinaraziz, idatziz, modu sinesgarrian —alta eman zuen modu berean—, betiere erabiltzailea erabiltzaile gisa dituen betebeharretan egunean badago.

Zerbitzuaren kuota urtero berrituko da, salbu eta abian den urteko abenduaren 31 baino lehenago jakinarazi bada zerbitzuan baja eman nahi dela.

Zerbitzuko bajak ez du zertan baja-eguna izan, eta horregatik, ez da kuota zatituko, ez eta itzuliko ere.

2. Zerbitzuaren etenarazpena

Mankomunitatearen Presidentziak, ofizioz edo zerbitzuen emakida kontratuaren bidez kudeatuko balitz, pertsona edo erakunde kudeatzaileak eskatuta, erabiltzaileak ibilgailuak erabiltzea aldi baterako eten ahalko du, aurretiaz abisatu gabe, erabiltzaileak kontratuko oinarritzko baldintzak betetzen ez baditu, honek zehapen izaerarik izan gabe, baizik eta premiazko kautelazko edo prebentzi neurri legez.

- a) Kasu horretan, berehala desaktibatuko da erabiltzailearen txartela edo ibilgailua desblokeatzeko sistema, eta erabiltzaileak ezingo du inongo kalte-ordainik eskatu.
- b) Eteatea indarrean sartuko da erabiltzaileak egintzaren berri ematen dion jakinarazpena jasotzen duenean.
- c) Eteatea erreserba aldi jaso gero, erreserba aldi hori bukatutakoan sartuko da indarrean, baina erabiltzaileak ezingo du erreserba aldi hori luzatzeko eskatu.

3. Kontratua suntsiaraztea

Erabiltzaileekiko kontratua Lehendakartzaren akordio bidez suntsiarazi ahal izango da, zehapen-espeditzea izapidetu ondoren, zehapen oso larri bat ezarriz gero zehapen osagarri gisa.



III. KAPITULUA
ZEHAPEN-ARAUBIDEA

11. artikulua. — *Printzipio orokorrak*

- a) Araudi honetako zehapen-araubidea lege hauen printzipioen arabera izango da: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean, eta Euskal Administrazio Publikoen zehapen ahalmena arautzen duen, martxoaren 16ko, 1/2023 Legean jasotako printzipioak.
- b) Halaber, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. Tituluan ezarritako xedapenak, garapen-arauetan eta erregelamendu honetan jasotakoak aplikatuko dira.

12. artikulua. — *Arau-hauste motak*

1. Araudi honetan jasotako xedapenei begira egindako arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izango dira.
2. Hona hemen arau-hauste oso larriak:
 - a) Zerbitzua osatzen duten elementuak modu larrian eta esanguratsuan narriatzeko ekintzak.
 - b) Ibilgailua galtzea, lapurtzea edo ebastea ez salatzea.
 - c) Ibilgailua sei ordu baino gehiagoko atzerapenarekin itzultzea, betiere interesdunak aurretik abisua eman ez badu.
 - d) Erabiltzaile batek erregai-txartela iruzurrez erabiltzea.
 - e) Ibilgailuaren erabilera okerra, bere larritasun handiagoa izateagatik, arin edo larri izaera ez badu.
 - f) Doloz ibilgailuei kalte larriak eragitea.
 - g) Ibilgailuei behin eta berriz kalte larriak eragitea, erru nabarmenarekin.
3. Hona hemen arau-hauste larriak:
 - a) Ibilgailua izan den unean ibilgailua ez zaintzea.
 - b) Zerbitzua osatzen duten elementuak narriatzeko ekintza justifikatugabeak.
 - c) Ibilgailua lau-sei ordu bitarteko atzerapenarekin itzultzea, betiere interesdunak aurretik abisua eman ez badu.
 - d) Erabiltzearen ondoriozko fakturak behin eta berriz ez ordaintzea.
4. Hona hemen arau-hauste arinak:
 - a) Zerbitzua osatzen duten elementuak modu arinean narriatzeko ekintza justifikatugabeak.
 - b) Ibilgailua ez entregatzea hartu zen moduan; adibidez, argiak piztuta, edo zikin (goitikoa, lokatza edo ibilgailua normal erabiltzetik ez datorren beste edozein zinkeria).
 - c) Ibilgailua gehienez ere 4 orduko atzerapenarekin itzultzea, betiere interesatuak aurretik abisua eman ez badu.
 - d) Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateari edo zerbitzuaren enpresa esleipendunari (nori dagokion kontuan izanda) erabiltzailearen datuen edozein aldaketa ez komunikatzea eta 6 puntutik beherako puntu-saldoan puntuak galdu izana ez komunikatzea.
 - e) Berarentzat gordetako lekua (ukanauto aparkalekua) ez den beste batean entregatzea ibilgailua.
 - f) Larri edo oso larri gisa jasota ez dagoen Erregelamendu honetako beste edozein arau-hauste.
 - g) Erabiltzaileak edozein faktura ez ordaintze puntuala.

**13. artikulua.— Zehapenak eta zerbitzuaren baja**

1. Araudi honetan tipifikatutako arau-hausteen gain zehapen hauek ezarriko dira:
 - a) Oso larriak: 200,00 eta 500,00 euro arteko isuna.
 - b) Larriak: 100,00 eta 199,00 euro arteko isuna.
 - c) Arinak: Gehienez 99,00 euroko isuna.
2. Araudi honetan tipifikatutako arau-hausteez zerbitzuan baja ematea ekar dezakete, modu honetan:
 - a) Oso larriak: Zerbitzuan gehienez bi urtez baja ematea, edo kontratuaren suntsiarazpena.
 - b) Larriak: Zerbitzuan gehienez urtebetez baja ematea.
 - c) Arinak: Zerbitzuan gehienez 6 hilabetez baja ematea.
3. Isunen zenbatekoak mailakatzeko eta aurreko artikulua 2. paragrafoan aurreikusitako zehapenen iraupena zehazteko, honako inguruabar hauek hartuko dira kontuan:
 - a) Egindako arau-hausteak gizartean duen garrantzia eta eragindako kaltea.
 - b) Legez kontrako irabazi-asmoa eta arau-haustea egitean lortutako etekinaren zenbatekoa.
 - c) Arau-hausteak behin eta berriro egitea.Baldin eta zehapen-espedita hasten denetik bost urte igaro arteko epean Araudi honetan aurreikusitako arau-hausteetako bat egiten bada, eta, horregatik, administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bidez zehapena ezarri bada, errepikapena gertatzen da.
4. Egitate berak arau desberdinetan tipifikatutako arau-hauste administratibo bi edo gehiago badira, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalmenari buruzko 1/2023 Legearen 17. artikuluari men egingo zaio.
5. Araudi honetan aurreikusitako edozein zehapen ezartzeak ez du zehapen-har-tzailea salbuesten erantzukizun zibiletik eta zigor-erantzukizunetik.

14. artikulua.— Preskripzioa

1. Araudi honetan ezarritako arau-hausteak eta zehapenak modu honetan preskribatzen dira:
 - a) Oso larriak, hiru urteko epean.
 - b) Larriak, bi urteko epean.
 - c) Arinak, urte bateko epean.
2. Arau-hausteen preskripzio-epea arau-haustea gertatzen den egunetik zenbatzen hasiko da.
3. Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezartzeko erabakitako ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasiko da.
4. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa eteteko, beharrezkoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako baldintzak betetzea.

15. artikulua.— Arau-hauste eta zehapen independenteak, eta bestelako arloko ordenek eskatu dezaketen zigor-ordenaren lehenespena

- a) Araudi honetan tipifikatutako arau-hausteen ondorioz ezarritako zehapenak bestelako arloko antolamenduen arabera erantzukizuna dakarten egintzen gaineko zehapenetatik independenteak dira.
- b) Administrazioaren zehapen-prozeduraren xede diren egintzek zigor-garrantzia dutenean, administrazio-prozedura eten egingo da zigor-prozeduraren ebazpena eman arte.

**16. artikulua.— *Organo zehatzailea***

1. Aurreko artikuluetan ezarritako zehatzeko ahala baliatzeko, dagokion administrazio-espeditentea hasi eta bideratu beharko da, kapitulu honetan eta Administrazioaren zehapen-prozedura arautzen duten legezko edo erregelamenduzko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2. Zerbitzuaren zeharkako kudeaketaren kasuan, zerbitzu-emakida baten bidez, pertsona edo erakunde emakidadunak ez du zigortzeko inolako ahalmenik izango, eta ezagutzen dituen arau-haustea salatuta eta Mankomunitateari jakinarazi ahal izango dizkio, dagokion zehapen-espeditentea ireki eta izapidetu ahal izan dezan.

3. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak zehatze-espeditenteak izapidetuko ditu eta administrazio-agintaritzak eskudunari helaraziko dizkio, hala behar denetan ebatz ditzan.

4. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko lehendakariari dagokio arau-haustee-tarako aurreikusitako zehapenak ezartzea.

5. Zerbitzua zerbitzu-emakida bidez kudeatuz gero, pertsona edo erakunde emakidadunari jakinarazi beharko zaizkio eman beharreko zerbitzuan eragina izan dezaketen zehapen guztiak.

17. artikulua.— *Kautelazko neurriak*

10.2 artikuluan Presidentziari emandako ahalmenez gain, zehapen-espeditentea hasita, eta arau-hauste berriak saihestearren, izapidegileak, kautelazko neurri gisa, debekatu ahal izango dio interesatuari Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko ibilgailuak erabiltzea, harik eta dagokion administrazio-prozedura ebatzi arte.

XEDAPEN GEHIGARRIA**Xedapen Gehigarri Bakarra**

«Ukanauto»ren zerbitzua legeak eskatuta oinarrizko zerbitzu bat ez denez, erregelamendu hau indarrean egongo da Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateak Ukan Autoren zerbitzua ematea erabakitzen duen bitartean, eta, ondorioz, bertan behera eta indar gabe geratuko da Mankomunitateak ematen uztea erabakiko balu.

AMAIERAKO XEDAPENA**Amaierako Xedapen Bakarra.— *Indarrean sartzea***

Araudi hau indarrean jarriko da hori oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarritako epea igaro ondoren.